

V. ERANSKINA

PROIEKTU MOTA: IKASKUNTZAKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUAK

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

a) Erakundearen kaudimen teknikoak ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak edo prestakuntzarako informazioa eta aholkularitza ematean, eta jarduera euskaraz zein gaztelaniaz egiteko gaitasuna (gehienez: 25 puntu)

Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuaren eskura jarritako pertsonak bizialdi osoko prestakuntzarako informazioaren eta aholkularitzaren alorrean egiazta dezaketen eskarmentuan oinarrituko da gaitasun teknikoa.

Eskatutako bitartekaritza-zerbitzuan bitartekariak generoak baldintzatu gabeko prestakuntzarako ikaskuntza-bitartekaritzaren edo informazio eta aholkularitzaren eremuan duten eskarmentu osagarriko (bigarren esperientzia-urteetik aurrera) urte bakoitzeko (gehienez guztira 10 puntu, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

- Esperientzia-urte osagarri bakoitzeko: puntu 1 urteko (gehienez 5 puntura arte).
- Bitartekaritza-zerbitzua egingo den eremu bereko esperientzia-urte osagarri bakoitzeko: puntu 1 urteko (gehienez 5 puntura arte).

Balorazio hori hainbanatu egingo da, hala badagokio, zerbitzuan jarduten diren bitartekari kopuruaren arabera.

Eskatutako bitartekaritza-zerbitzuaren esku dagoen bitartekariak jasotako prestakuntza bakoitzeko, kompetentzia profesionalen ebaluazioarekin eta egiaztapenarekin zuzenean lotutakoa (0,5 puntu prestakuntzako, gehienez 1,5 puntura arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Balorazio hori hainbanatu egingo da, hala badagokio, zerbitzuan jarduten diren bitartekari kopuruaren arabera.

Bitartekaritza-zerbitzuaren esku dagoen bitartekariak azken 3 urteetan emandako kompetentzia profesionalen ebaluazioarekin eta egiaztapenarekin zuzenean lotutako informazio-jardunaldi bakoitzeko (0,5 puntu, gehienez 1,5 puntura arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Balorazio hori hainbanatu egingo da, hala badagokio, zerbitzuan jarduten diren bitartekari kopuruaren arabera.

Bitartekaritza-zerbitzuaren esku dauden bitartekari GUZTIEAK uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko euskararen C1 maila eta horren baliokideak egiaztatzea. Dekretu horrek euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen du (4 puntu, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Bitartekaritza-zerbitzuaren esku dagoen bitartekariak jaso dituen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko eta gutxienez 20 orduko ikastaro bakoitzeko (1 puntu ikastaroko, gehienez 4 puntura arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroak 4 punturekin baloratuko dira.

Proiektua garatzeko eskuragarri jarriko diren baliabide teknikoen (espazioak, ekipamenduak, softwarea...) eta materialen (hizkuntza ez-sexista erabiliz idatzitako testuak, rolak hausten lagunduko duten irudiak...) deskribapen zehatza (4 puntu baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

GUZTIZKO PARTZIALA

b) Eremuan bizialdi osoko ikaskuntza sustatzeko jarduketa-plan bat planifikatzea eta garatzea, lortu nahi diren helburuak eta horien lorpena ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazleak argi eta garbi adierazita (gehienez: 20 puntu)

Jardun nahi den eremurako jarduketa-plan bat planifikatzen eta garatzen du, prestakuntza herritar guztiei hurbiltzeko helburuarekin, leku horretan bizialdi osoko ikaskuntzarako jarduerak gauzatzen dituzten erakunde eta eragile guztiekin lankidetzan. Garatu beharreko jarduketa-planaren deskribapen zehatza, lortu nahi diren helburuak eta horien lorpena ebaluatzeko prozedura jasotzen ditu (7 puntu)

Erakundeekin, hezitzaileekin eta eremuko beste eragileekin lan proaktiboa egiten du bizialdi osoko ikaskuntza-jarduerak sustatzeko, bereziki eremuan bete gabe geratu den eskaera dagoela antzematen bada. Garatu beharreko lan proaktiboaren deskribapen zehatza, lortu nahi diren helburuak eta horien lorpena ebaluatzeko prozedura jasotzen ditu (7 puntu)

Bizialdi osoko ikaskuntzako jarduera zehatzak sustatzen, diseinatzen eta garatzen ditu, tokiko edo eskualdeko esparruan alor horretan antzemandako premien arabera, eta jarduketa bakoitzaren onuradun izango diren pertsonen taldea zehatzuz. Garatu beharreko jarduketaren deskribapen zehatza, lortu nahi diren helburuak eta horien lorpena ebaluatzeko prozedura jasotzen ditu (6 puntu)

GUZTIZKO PARTZIALA

c) Gauzatu nahi den bitartekaritza-zerbitzuaren edukiaren zehaztasun-maila, honako hauek jasotzen direla: zerbitzua eman nahi dien pertsonen kopurua, horien tipologia, zerbitzua emandako pertsonen prestakuntza-ibilbidearen jarraipena eta sustapena (gehienez: 30 puntu)

Zenbat pertsonari emango zaien informazioa, aholkuak eta haien prestakuntza-ibilbidea bultzatu aurrez aurre, sexuaren arabera bananduta (gehienez 4 puntu)

≥ 1.000 pertsona (4 puntu)

$500 \leq \text{persona} < 1.000$ (2 puntu)

$300 \leq \text{persona} < 500$ (1 puntu)

Zerbitzua emango zaien pertsonen (emakumeak eta gizonak) tipologia (gehienez 4 puntu)

Zerbitzua eman beharreko kualifikazio baxuko edo prestakuntza-maila baxuko populazioaren ehunekoa \geq % 60 (4 puntu)

Zerbitzua eman beharreko kualifikazio baxuko edo prestakuntza-maila baxuko populazioaren ehunekoa $\% 40 \leq x < \% 60$ (2 puntu)

Prestakuntza-ibilbide individualizatuaren jarraipena eta sustapena (gehienez 10 puntu)

Pertsona bakoitzari aholkua emateko prozesua banakakoa eta xehatua da, gizartean ezarri ohi diren genero-rolak kontuan hartuta: banakako helburuak zehaztuko dira, eta laguntza banaka eman eta haien jarraipena ere banaka egin behar da (7 puntu)

Emandako zerbitzu individualizatuaren aurreikusitako ebaluazioa: ebaluazio-tresnen zehaztapena (3 puntu)

Bitartekaritza-zerbitzuaren helburuen eta lan-metodologiaren zehaztapen-maila (gehienez 12 puntu)

Bitartekaritza-zerbitzurako aurreikusitako helburu zehatzak, lortzeko moduak, neurgarriak eta ebaluagarriak (4 puntu)

Adierazle zehatzak helburuak lorpena ebaluatzeko (4 puntu)

Aurreikusitako metodologiaren deskribapen xehatua, zerbitzuaren helburuekin eta populazio hartzailearen topologiarekin bat (3 puntu)

Proiektuaren garapenerako egutegi zehatza (1 puntu)

GUZTIZKO PARTZIALA

GUZTIRA (GEHIENEZ 75 PUNTU)